

✿ Hitz eta Pitz ✿

Mariasun Landa hasi zen eta hazi da

80ko hamarkadaren hasieran oso liburu gutxi argitaratzen ziren euskaraz, eta guzti-guztiak ikus zitezkeen lasai asko dendetan. Garai hartan haur eta gazte literaturan kanpoko argitaletxeak ziren nagusi eta poliki-poliki hemengo etxe berri batzuk, Erein eta Elkar, beren sail berriak plazaratzen ari ziren.

Garai hartako liburuez oso gutxi gogoratzen dut. *Pernando Amezketarra* leku guztietan zegoela... *Euskaldun bat Marten* liburuarekin hasitako bilduma erakargarria..., eta *Txan fantasma*. Liburu hura aurkikuntza handia izan zen euskal haur eta gazte literaturan ari ginenontzat. Liburu berria, berritzailea, temakika ausarta eta ilustrazio irekiak zituen liburua. Askorentzat Txan izan zen Mariasun Landa deskubritzeko bidea. Lehendik bazuen beste lanen bat edo beste, baina Karmen txuren istorioa kontatzen zuen liburu hark atzean ezkutatzen zuen pertsona ondo ezagutzeko eta kontuan izateko abisua zen.

Ondoren etorri ziren Txanen bertsoiak beste hizkuntza batzuetan eta Mariasunen produkzio etengabea. Joxepi dendariaren borroka orijinala istorio sinplean kontatua, Maria eta aterkiaren arteko maitasunezko istorioa, Errusikaren abenturak bere ametsak betetzearren, Iholdiren kontakizun minimalistak, Alex antiheroia, Aitonak txalupako ilobari beste mundutik hitz egiten ziona... Irakurleak ohitu ginen ia urtero-urtero Mariasun Landaren liburu berriak irakurtzera. Ha-

sierako kontakizun simple haietatik, kariño beharra, maitasuna edo norberaren garapena bezalako gaiak ukitzen zituzten hasierko liburu haietatik, narrazio simple-sinpleak, minimalistak, irakurtzera pasatu ginen, harik eta 1994an *Julietta, Romeo eta saguak* umorezko istorio luzea argitaratu arte. Lan horretatik aurrera Mariasunek hasierako sinpletasuna eta irakurlearengan sentimendu eta gogoetak sortarazteko gogoia mantendu zuen istorio gero eta luzeagoetan, gero eta elaboratuagoetan. Badirudi, idazlea irakurlearekin batera hazi dela. Haur istorio haiek gazteentzako istorioak bilakatu dira. Horrela *Nire eskua zurean* amaren egoera berria onartzen ez duen mutila agertuko zaigu. Baina horren ondoan *Galtzerdi suizida* aurkituko dugu, bere buruaz beste egin nahi duen galtzerdiaren istorioa. Umorea, ironia, abentura eta elementu magikoak nahasten dira Mariasunen lanetan. Elefante irakaslea aurkituko dugu, baita maisu guztiak botila bihurtzen dituen sorgina...

Baina Mariasun Landa, Errenteriko idazlea, gure mugaz kanpo ere gero eta ezagunago egin da. Bere lanak euskaraz gain beste bederatziz hizkuntzatan irakur daitezke. Karmentxuren berri dute Grezian edo Estatu Batuetan; Alexi gertatu zitzaiona dakite Frantziako haurrek, baita Albaniakoek ere; Kleta bizkletaren greba ezaguna da Katalunian eta Españan, Joxepik izaniko borroka Galiziaraino iritsi da...

Orain, berriz, krokodilo bat dabil liburu artean bueltaka; batzuek diote ohe azpian ezkutaturik dagoela, J. J. langileak ongi

elikatzen duela eta Elenarekin hitz egiten duela krokodiloari buruz. Nik ez dakit krokodilo horrek hor jarraituko duen, J. J. ren ohe azpian, izan ere Mariasun Landak euskal haur eta gazte literaturak irabazitako saririk garrantzitsuena lortu baitu krokodilo horren istorioarekin. Lehendik ere bere obren kalitateagatik ezaguna genuen idazlea are ezagunago egiteko bidean jarri da krokodilo bat ohe azpian zegoelako. Aizue, norbaitek utziko al dio liburu hori Txan fantasmari Karmentxuri pasa diezaion? Ziur nago Karmentxu hazi eta handitu egin dela, gure literatura handitu den bezala, gure obren kalitatea hobetu eta kantitatea gehitu den bezala; hasierako idazle hura hazi eta handitu den bezala.



Luis Alonso

Elefanteak, arkakusoak, krokodiloak...

Barruko faunaren inguruan



Luis Alonso

Espainiako Haur eta Gazte liburuaren bilakaeraren inguruko topaketa hone-tan egingo dudan azalpen labur hau hasteko gogora ekartzen badut idazle izatea, besteak beste, Norberaren Munduan arrotz bihurtzea dela, ez naiz kontu berririk esaten ari. Orduak eta orduak ematen ditugula irudimena deitu ohi dugun lurralde lausoan jirabiran eta idazten dugunaren zati bat, behintzat, ezagutzen ez dugun edo «gaizkiezagutzen» dugun zerbaiten itzulpena dela. Eta horrela aurreratzen dut nire hausnarketei emango diedan ikuspuntua, baztertu gabe beste batzuk ere izango direla, eta kolore ugarikoak, elkarren baztertzaila ez direnak. Idazleak bere buruaz ezagutzen ez duen baina bere baitan bizi duen hura haur literaturak nola eraman dezakeen, hori da hizpidera ekarri nahi dudana.

Egia esan, haur eta gazte literaturaren lurraldean sartu nintzeneko freskura eta erraztasunak beti hunkitzen naute.

Hogei urtetik gora dira, haurrentzako nire lehen ipuin liburua argitaratu nuela. Aurreko ibilbidean ez zuen ezerk iragartzen nire literatur lana haurren mundura zuzenduko zenik; ez nire irakurketek, ez 68ko maiatzaren ondoren Parisen eginiko Filosofia ikasketek (orduan *Pura* deitzen genuena), eta ezta ere –jakina–



Luis Alonso

nire gaztetako literatur handinahiak. 1973an Euskal Herrira itzultzeak eta euskara ikasteko hartutako konpromiso pertsonalak lagundu zidaten filosofiaren gailur elurtuetatik OHO-ko lehen mailako neska-mutil talde baten zelai berdeetara jaisten. Hamarkada haren hasieran, ia hirugarren mundukoa zen egoeran ikastoletan euskaraz irakasten aritzea abentura bat zen. Eta abentura horrek bultzatu ninduen nire lehen haur liburuak idaztera, nire ikasleei euskarazko literatur materiala eskaintzeko xede duinarekin. Abentura horrek sartu ninduen, harriduraz eta bertasunez, kanon ofizialak baztertutako Haur Literatura modernoaren kontinente ezezagunean, ustekabez betetako kutxa bat izan zena niretzat: Gianni Rodari, Christine Nöstlinger, Maria Gripe, Michael Ende, Roald Dhal... Urteekin, nire interesak atzera egin du, klasikoak deitu ditugunenganantz, ahozko literaturarantz, zenbat eta sakonago orduan eta aberats eta zabalagoa den zuloa egiten ari dena bezala-edo.

Nire ikasleentzako idazten nituen ipuin haiek jasotzen zituen lehen liburu hartatik joandako

hogei urteen buruan, xalotasuna galdu eta umiltasunean irabazi dudala uste dut. Gaur egun, ez dakit oso ondo zer esan nahi duen «haurrentzako idazteak»; ez dut beti jakiten, adibidez, nola eta zergatik bururatu zaidan istorio hau edo beste hura.

Zergatik idazten dituzu haurrentzako ipuinak? Nola bururatzen zaizkizu istorio horiek?

Hara, ez! Horra hor haur literatura idazten dugunoi etengabe egin ohi zaizkigun bi galdera.

Irakurle, haur eta gazteekin topaketa askotan izan naiz. Elkarrizketa, irrati edo telebista askotan egin dizkidate galdera horiek, baina kontu horiek beti nahastu eta urduritzen nautela esan diezazueket. Betiko galdera horien azpian isilagoak diren beste batzuk ezkututzen dira, guztiok dakigu hori: Zergatik idazten ditu halako istorioak zu bezalako pertsonak? Zergatik ez lelokeria horiek utzi eta helduentzako nobela bat idatzi?

Egia da, dagoeneko, badugula galdera bakoitzerako egokia iruditzen zaigun irteeraren bat, edo gehiago, baina litekeena da sakonean egia osoa guztiz ez esatea guk geuk ere, idazleok, ezagutzen ez dugulako.



Luis Alonso



Luis Alonso

Hori guztia egia izanda ere, itxuraz hain erraza den galdera horri emandako erantzun pertsonal bakoitza baldarra da ia beti, nahasia, frustragarria. Beti geratu ohi da gaizki erantzun izanaren sentsazioa, oraindik ere –urteak gorabehera– ez baitakigu zergatik idatzi dugun eta zergatik jarraitzen dugun idazten, seriozki, zailtasunez, diziplinaz eta batzuetan euforiaz, gezurrak, gezur asko, inoiz izan ez ziren baina beharbada nolabait izan ahal izan ziren istorioak. Eta egonezin hori handiagoa da agian haur literatura idazten dugunongan, fantasia, absurdua, jolasa, samurtasuna, abentura, umorea nagusi diren eremu horretan ari garenongan. Niri dagokidanean, txori bihotza duten elefanteen istorioak, Errusiara bidaiatu nahi duten arkakuso dantzariak, bere patu tristea onartu ez eta, suizidak legez, hirugarren solairutik behera bere burua botatzen duten galtzerdiak, greba egiten duten bizikletak... Bai, egia esan, galderak erantzun zaila eta konplexua du.

Izan ere, idazle ofizioari buruzko bibliografia zabala dago eta autore asko dabil zergatik idazten duen aztertu eta zintzoki erantzun nahian. Erantzunak askotarikoak eta pertsonalak dira, baina batzuk eskematikoki biltzera ausartzen naiz baliogarri baitira haur eta gazte literaturarako ere bai: norberaren mundua antolatzeke idazten dutela diote batzuek, beldurra gaintzeko. Denborari, besteei, norberari diogun beldurra. Norberaren errealitatea ezagutzeko, balora gaitzaten, maita gaitzaten, geure burua eta gainerakoak aztertzeke, egungo errealitatearen berri emateko. Beste batzuek literaturaren alde ludikoa nabarmentzen dute, idatzi beharra babes bezala, ihesbide, jolas bezala edo, besterik gabe, hobekien egiten dakitena dela diote. Guztiarekin ere, erantzunik orokorrenetakoak dio idazleok adierazpen eta komunikazio premia halabeharrezkoagatik idazten dugula.



Luis Alonso



I n o r k
baino hobeto
dakigu idazleok
munduko gauzarik
gizatiarrena norberaren
burua narratzea dela,
geure bizitza –azken buruan
bizipen, sentsazio, oroitzapen... mordoa baino ez dena–
egitura narratibo batez hornitzea. Biografia bat izatea kontaketa bat izatea dela; memoria izatea erreal eta irudizkoa, garena eta izan nahi genukeena nahasten direneko kaosean ordena eze-gonkorra jartzea dela, gure baitan ez baitago ahots bakarra, batzuk baizik, koro bat beharbada, eta baita orfeoi bat ere.

Egia esan, norberaren burua narratzearen premia hain gizatiar hori ari naiz aipatzen, fantasian aritzeko beharra, aditzekoa, erreal deritzogunetik haratago istorioak sortu eta bizi izatekoa. Eta, kontziente edo inkontzienteki, beste batzuentzat egitekoa. Iritsi nahi dugun beste horrentzat, geureganatu edo hunkitu nahi dugunarentzat, edo mendekuz hartu nahi dugunarentzat. Gauza bera da. BESTE hori zeina gabe ez zukeen zentzurik izango NI-taz hitz egiteak. Baina zer gertatzen da BESTE hori haur edo gazte balizko hartzailea denean? Kontu oso aztertu eta eztabaidatua denez, mugatuko naiz apaltasunez esatera istorio bat idazten hasten naizenean batez ere horretan pentsatzen dudala: istorioan. Ea gorpuztuko ote den, eutsiko ote dion, gustatuko ote

zaidan, neure autozentsura gaindituko ote duen. Geroago, berregite eta zuzenketa lanean, hartzai-learenganako erreferentzia funtsezkoa da niretzat eta seriotasunez eta zorroztasunez egiten dudala uste dut. Baina aipatu dudan lehenengo fase hori izango ez balitz, haur literaturak ez luke interes handirik izango niretzat. Aspertu egingo nintzatekeela uste dut.

Antzeko zerbait gertatzen zait nire liburuetakobatzuen genesisia azaltzen saiatzen naizenean.

Egia da guztiok ditugula erantzun gutxi gorabehera egoki batzuk, eta nolabait benetakoak direnak, geure istorioen genesiari buruzkoak. Baina, batzuetan, ni behintzat, neure aurkikuntzekin inkontziente samarra naiz.

Egia esan, liburu oro hasten da idatzi aurretik; istorioan, pertsonaiengan, bukaeran pentsatu aurretik. Pertzepzio multzo baten itzulpen modu bat da liburu bat.

Elefante txori-bihotza nire liburuan, adibidez, neure burua horrela autodefinitu baino urte asko beranduago gorpuztu zen istorioa, hau da, neure burua bihotz zoro, fantasiatsu, arin samarra, ezezaguna eta itxura serio eta arduratsuan ezkutatutakoa duen elefantetzat hartu eta askoz geroago. Ni naizena dirudiena, nire ustez besteek nigan ikusten dutena, agian izan nahi nukeena pixka bat azaltzen duen nahasketa oso arraroa. Horrela ikusi dut neure burua luzaroan, hortik narrazio bat sor zitekeela pentsatu gabe.


Ausartuko nintzateke esatera ideia, fikzioaren gaia, sortzen deneko unea, kontzientea eta inkontzientearen arteko muga, sarritan, misterioitsua

dela idazlearentzat berarentzat. Batzuek inspirazio edo trantze nozioa erabili dute –hitz benetan zehaztugabeak–, jan, amets egin edo lan egiten duen bitartean idazlearen barruan haziz doan ernamuin moduko bat, gero hitzen bidez bideratzen dena paperera. Irudiak, konparazioak, metaforak, baina, guztiarekin, iluntasunetik datorren zerbait betiere. Zein iluntasun? Geure baitan sumatzen duguna. Izan ere, beharbada idazle izatea guztiz ezaguna den zerbaitetan alde ezezagunak ikusteko gai izatea izango da, sortzaile izateko modu bat beste askoren artean. Iruditzen zait adierazteko berezko modua, barne mundua, imaginario pertsonala, estilo bat izatea dela garrantzitsua.

Azken urteotan, prozesu sortzaileari buruzko liburu asko ari dira kaleratzen, idazleek beraiek idatzitakoak. Badirudi idazlearen literatur ibilbidean badela une bat non idazleak bere literatur zereginari buruzko hausnarketa egiteko premia nahitaezkoa sentitzen duen. Nola egin duen bere lana, zergatik idatzi zuen hau eta ez beste hura, bere lanen genesi eta ernatzea, bere obsesioak, bere gai errepikariak, ... munduan zailena gertatzen zaigunaren bilaketan: geure burua ulertzea. Baita besteak eta inguratzen gaituen mundua ere. Horrela, saio hori areago da azterketa asmaketa baino, areago iluntasuna argia baino, areago ahalegina ziurtasuna baino eta, nolana ere, areago esperientzia esperimientua baino. Prozesu bat da, aurretik sumatu ezin dena, nola hasten den jakin badakizuna baina ez mamituko den, bukatuko den, beste ahotsik aurkituko duen, beste bihotzik, beste entzuterik, irakurlerik.

Nola bururatu zaizkidan idatzi ditudan istorioak?

Lehen elefante txori-bihotza izatearen nire autopertzepzioa aipatu dut; beste batzuetan arkakuso sentitu naiz, ezdeus, txiki, kaskar, baina ezinezkoa zirudiena bizi izateko gogotsu. Horrela sentitu nintzen gau batez, duela urte asko, Bartzelonan. Hara eraman ninduten kontuak ez zitzaizkidan ondo irten, etxe ezezagunean nengoen, eta bakarrik. Beti zorroan eraman ohi dudakoaderno horietako bat hartu eta idazteari ekin nion: Arkakusotxo batek, jaio berritan, galdeetzen die gurasoei: «Zenbat denbora dut bizitzeko?». Izan ere dantzari izan nahi du eta presaz ibili beharra du. Bi folio zirriborrotan, baina Errusika arkakusoaren istorioa bidean zen eta urte batzuk geroago ikusiko zuen argia. Gaur egun, gatzelaniaz eta katalanez ez ezik, ingelesez eta alemanieraz ere irakur daiteke.



Luis Alonso



Luis Alonso

Hurrengo batean, gerritik helduta dauden eta aurpegia ikusten ez zaien emakume bat eta haur baten argazkia izan zen *Nire eskua zurean* idaztera eraman ninduen. Nerabe baten egunerokoa da, ama berriz ezkon dadin onartzen ez duelako etxetik ihes egin duen nerabea, asaldura eta amaren beharraren arteko borrokan dabilena. Maitasun istorioa, bakardade istorioa, hazte-krisi istorioa, bukaera irekia duena. Edo tximista bailitzan burua zeharkatzen dizun esaldi bat –*Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean*– izan daiteke beste kontaketa baten hasiera niri gertatutako

egoerak eta guztiz asmatutakoak kontatzeko. Beti interesatu izan zait fantasia, errealitatea gehiago ulertzeko erabil dezakedan neurrian. Edo nire sentimenduetaz lotsaz hitz egin, haur ahots baten atzean ezkutatuta, *Iholdi*, *Ainhoa* eta *Alex* liburuetan bezala (gaztelaniaz *Cuadernos secretos* liburuan bilduak). Haur emozioak modu ahalik eta estilizatuenean islatzeko saio bat, xumetasun linguistikoa haurtzaroko sentimendu eta bizipenen konplexutasunaren zerbitzura, ezagutzen ditudan neska eta mutilenera, ni neu izan nintzen eta oraindik naizen haurrarenera. Iholdik bere ezkutuko koadernoan idazten duen bezala, nire bularrean jauzika dabilen apoa da beldurra niretzat ere, urdailetik eztarrira, eztarritik burura saltoka dabilena, eta kantuan hasten naizenean baino lasaitzen ez dena, apoez ez baitute musika estimatzen, logura etortzen zaie, eta horrela lorzen dut lokar dadin eta baketan utz nazan.

Laburbilduz, idatzi dudanaren zati handi bat kontsolatzeko izan dela suposatzen dut, distraitzeko, jostatzeko.

Niri dagokidanez, autokontsolatzeko beharrak sarritan eraman nau argitaratu dudan haur literatura idaztera. Exortzizatzeko modu bat izango balitz bezala, gaingidatzeko modu bat, larritzen naunari forma eman edo kezkatzen naunetik ihes egiteko modu bat. Hitz batez, heldua izateaz kontsolatzeko modu bat dela suposatzen dut. Ez dut uste oso originala naizenik. Ederra da Antoine de Saint-Exupéryk *Printze txikia* une hartan neke handiak jasaten ari zen lagun bati eskaini izana, Lewis Carrolllek *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* maitasun-oparia maite zuen neskatila hari eskaini izana, *Peter Pan* gutxiagotasun, heldugabetasun eta zalantzazko gizontasun konplexuak sentitu eta pairatzen zituen gizon baten autobiografia izatea. Hans Christian Andersen handiak *Ahatetxo itsusia* ipuinean erretratu zuen bere burua, haurtzaroko mingostasunen kontsolagarri. Topikoa izan daiteke barruan darماغun haurra aipatzea, baina, haatik, erreali-

tatea da. Erreprimitua edo puztua, haurra bada izan. Eta ez da beti haur zoriontsua.

Beraz, niri dagokidanez, istorioak eta horiek kontatzeko beharra, batzuetan, iluntasunetik sortu dira, argiztatu egin behar den espazio batetik –gutxienez ez da horretarako beldurrik izan behar–, mundu kontziente, erreal, posibletik, baina baita ezagutzen ez dugun baina bizi gaituen mundutik ere. Eta gustuz egin, plazerrez, jakin-minez, jakinda imajinatzea, sortzea –gutxi, asko, ondo edo gaizki–, babesa dela, biziraupen baliabidea, kontzienteki besteei erdi irekitzen diegun gotorleku menperaezin bat. Halaber uste dut, oro har, sortzaile izateak suposatzen duela haurrak ginela bizi izandako jolasaren plazerra norberaren barruan kontserbatzea.

Argitaratu dudan azken liburuak, *Krokodiloa ohe azpian*, gazte bakarti baten depresiorako bidea kontatzen du; berak baino ikusten ez duen eta elikatzeko zapatak eman behar dizkion krokodilo bat aurkituko du bere ohe azpian. Umorekutsuz idatzia, kontua itsuasiagotuz joango da protagonista bere bakardade eta angustiaz konaturatuz doan neurrian. Harik eta maitasunak, nire

beste ipuin askotan bezala, irtenbidea eskaini eta muturreko egoerari leiho bat irekitzen dion arte.

Eskuizkribu horrek urteak eman ditu nire kaxoian, aspaldian zegoen ia erabat idatzia, baina denbora hori guztia behar izan dut aurreko bertsioek ez zuten iruzkin bat –itxuraz interesik gabea– gehitzeko bukaerari. Neskak, zeinaz protagonista maitemindu den, aitortzen dionean berak ere baduela krokodilo bat ohe azpian –eskumuturreko erlojuak jaten dituen–, eskuizkribuak luzaroan itxaron duelako bakarrik idatzi ahal izan dudan zerbaitez ohartarazten du protagonista:

—Orain zure krokodiloa desagertu egin da. Baina krokodiloa itzuli egingo da.

Krokodiloa itzuli egingo da.

Izan ere, beharbada, krokodiloa, gure neurosiaren metafora, garena izatera garamatzana baita hain zuzen ere, geure onena eta txarrenaren sorburu, ilunarena, oraindik idaztera garamatzanarena... Eta, beharbada, hortxe dago idazten duguna haurren gustukoa izatearen giltza; ez dira inozoak.

MARIASUN LANDA, 2003



Luis Alonso